



MATRIKULA OFIZIALA (2018 – 2019 ikasturtea)

Euskal Herriko Hizkuntza Eskola Ofizialetan ikasleak *Onartzeko eta Matrikulatzeko Agindua, 2013ko uztailaren 3koa (EHAA 139 2013ko uztailaren 22koa)* eta *Onartzeko eta Matrikulatzeko Ebazpenaren* arabera (<http://www.eoitolosaheo.hezkuntza.net/eu/> orriko "administrazio arauak" atalean kontsulta daiteke), matrikula egiteko baldintzak hauek dira:

1. HIZKUNTZAK ETA MAILAK:

- Hizkuntzak: Frantsesa eta Ingelesa.
- Mailak: Ingelesean, maila guztiak (A1, A2, B1.1, B1.2, B2 eta C1).
Frantsesean, maila guztiak, C1 ezik. (A1, A2, B1.1, B1.2 eta B2).
- Ikastaro semipresentziala: Ingeleseko B2 (asteartea 18:00 - 20:15).

Hizkuntza Eskola Ofizial batean baino ezin da matrikula egin hizkuntza bera ikasteko.
Bi edo hiru hizkuntza ikasi nahi dutenek hizkuntza bakoitzeko eskabide bat egin behar dute.

2. MAILAKATZEKO PROBAK:

Auto-ebaluaziorako probak dira, eta aurreko ikasmaila gainditu gabe ikasmaila jakin batean matrikulatu nahi duten guztiak egin behar dituzte. <http://www.eoitolosaheo.hezkuntza.net/eu/inicio1> egin ahal dira.

3. PROZEDURA:

Matrikula **Interneten bidez soilik egin daiteke**:

<http://www.euskadi.eus/hizkuntzen-irakaskuntza-hizkuntza-eskola-ofizialak/web01-a3hheoi/eu/> orrian.

Talde-ordutegiak ikastetxeko web gunean begiratu ahal izango dira.

<http://www.eoitolosaheo.hezkuntza.net/eu/informacion-general>:

4. ADINA:

DBHn atzerriko lehenengo hizkuntza modura ikasitako hizkuntzarako, ezinbestekoa da 16 urte beteta izatea 2018ko urtean. Beste hizkuntzetarako, berriz, 14 urte beteta izatea.

5. EPEA: Irailaren 1etik 19ra (13:00ak arte), biak barne, eskatzaile guztientzat. SALBUESPENAK:

- **Ekaineko deialdian GAINDITU EZ DUTEN edo AURKEZTU EZ DIREN** 2017-2018 ikasturteko ikasle ofizialak; hauek irailaren 15etik 19ra aurkeztu ahal izango dute eskabidea iraileko deialdiko emaitza jakin ondoren.
- 2017-2018 ikasturtean deialdiak agortu dituztenek **aparteko deialdirako eskaera** bete beharko dute **irailaren 19ko 13:00etatik, urriaren 4ko 13:00ak arte**.

Onartua izanez gero, matrikula eskaera egiteko HEOran etorri behar dute; aplikazio informatikoak zenbaki aleatorio bat emango die eta eskabidea 2. faseko esleipenean sartuko da (ikus 11. atala)

6. DOKUMENTAZIOA: Irailaren 19ko 14:00ak arte

Idazkaritzan (beheko solairuan) online egindako eskaeraren frogagiriaren kopia eta beste agirien orijinala eta fotokopia aurkeztu beharko dituzte ondorengo hauek:

1. Baremazioarako eta behar diren egokitzapenetarako ezintasunen bat alegatzen dutenek.
2. Atzerritarrek, identifikatzeko NAN edo AIZ (atzerritarren identifikazio zenbakia) ez den beste agiriren bat erabili badute.
3. Euskal Autonomia Erkidegoan bizi ez eta familia ugariko kideak direla esan dutenek.
4. Baremazioarako, unibertsitateko irakasleek eta ez itunpeko ikastetxe pribatuetakoko irakasleek unibertsitateak edo ikastetxeak emandako ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
5. Terrorismoaren biktimak direla diotenen Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak luzatutako agiria, 2018an gaurkotuta, aurkeztu beharko dute.
6. 2017-2018an EAEko kanpoko Hizkuntza Eskola Ofizialetako ikasle ofizialek aurkeztu beharko dute haien eskolako ziurtagiria eta horretan adierazi behar da ofizialak direla dagokion hizkuntzan
7. 16 urtetik beheragoko ikasle berriek ikastetxean bertan egin behar dute matrikula eskaera, eta DBHn ikasten ari diren lehenengo atzerriko hizkuntza zein den adierazten duen beraien ikastetxeko egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

7. HEZKUNTZA BEHAR BEREZIAK DITUZTEN PERTSONAK:

Eskoletarako edo/eta probak egiteko laguntza behar duten hezkuntza behar bereziak dituzten pertsonak, matrikula eskaera egitean ikastetxeari jakinarazi behar diote. Horretarako, eskolako web orrian eskuragarri dagoen inprimakia bete **eta irailaren 19ko 14:00ak arte**, aurkeztu behar dute Idazkaritzan. Bestela, laguntza ez da bermatuko.

8. EPEZ KANPOKO ESKARIAK:

Irailaren 19ko 13:00etatik, urriaren 4ko 13:00ak arte aplikazioan sartutako eskabideak epez kanpo aurkeztutako eskabideak dira.

- 2. faseko plaza esleipenean sartuko dira.
- Ez dira barematzen.
- Aplikazio informatikoak emandako zenbakiaren arabera ordenatuko dira.
- Urriaren 4ko 13:00etatik aurrera ez da eskabiderik onartuko.
- Behar izanez gero, 6.1, 6.2, 6.3, 6.5 eta 6.7 ataletako agiriak urriaren 4ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dituzte.

9. BAREMAZIOA:

- Baremazio-prozesutik salbuetsita geratuko dira aurreko ikasturtean ofizialak izanda ikasmaila errepikatuko dutenak, bai ikasmaila gaindituta hizkuntza berean hurrengo ikasmailara pasatuko direnak ere, baldin eta matrikula egiteko lehentasuna galdu ez badute hutsegite kopuruagatik edo matrikulari arrazoirik gabe uko egin izanagatik.

- Baremazio-prozesuan sartuko dira irailaren 1etik 19ra matrikula eskabidea egiten duten **beste guztiak**. Baremazio-irizpideak hauexek dira: adina, ezintasun egoera, familia ugariko kidetza, eta irakasle izatea. Argibide gehiago nahi izanez gero, ikusi *dokumentuaren amaierako I.eranskina*.

10. PLAZAK ESLEITZEKO 1.FASEA, epe barruan (irailaren 1etik 19ra,13:00ak arte) aurkeztutako eskabideentzat.

- Lehenengo, aplikazio informatikoak plazak eta ordutegiak baremazio-prozesutik salbuetsita diren ikasleei emango dizkie, aplikazioak eskabidea egitean emandako zenbaki aleatorioaren arabera ordenatuta.
- Bigarren, barematutako ikasleei, baremazio-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera.

1. FASEKO EGUTEGIA:

- **Onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda: irailaren 21ean, 10:00etatik aurrera.** Ezinbestekoa da **Eskolan bertan edo** gure web-orrian begiratzea: <http://www.eitoloaheo.hezkuntza.net/eu/listados-de-admitidos-y-excluidos>
Behin-behineko zerrendan agertzeak ez du esan nahi behin betiko onartuta egotea. Behin betiko zerrenda begiratu eta dagokion epean ordaindu behar da.
- **Erreklamazio-epea (Administraritzaren akatsa bada soilik):** irailaren 21etik 25era (14:00ak arte)
- **Behin betiko zerrenda:** irailaren 27an, 10etatik aurrera.

1.FASEKO ORDAINKETA: (hizkuntza eta maila bakoitzeko 72,36€) Irailaren 27tik urriaren 1eko 24:00ak arte. Matrikularen aplikazioan agertzen diren argibideei jarraituz, Interneten. Ez da bueltatuko oker egindako diru-sarrerarik.

- **Ez ordaintzearen kanporatuen behin-behineko zerrenda: urriak 3an, 10:00etatik aurrera.** Ezinbestekoa da **Eskolan bertan begiratzea edo** gure web-orrian: <http://www.eitoloaheo.hezkuntza.net/eu/listados-de-admitidos-y-excluidos>
- **Erreklamatzeko epea (Administraritzaren akatsa bada soilik):** urriaren 3tik urriaren 4a arte.
- **Ez ordaintzearen kanporatuen behin betiko zerrenda: Urriaren 5ean, 10:00etatik aurrera.** Hauek ezin dute 2. faseko esleipen-prozesuan parte hartu, ezta epez kanpoko eskabiderik egin ere.

11. PLAZAK ESLEITZEKO 2. FASEA: urriak 8.

Ez da eskabide berririk egin behar. Aplikazio informatikoak **automatikoki** geratzen diren plazak ordena honetan esleituko ditu:

1. fasean lekurik lortu ez dutenak, baztertuen behin betiko zerrendan agertzen diren hurrenkeran.
2. Aparteko deialdia lortu dutenak, aplikazio informatikoak eskabidea egitean emandako zenbaki aleatoriaren arabera.
3. Epez kanpoko eskabidea aurkeztu dutenak, era berean ordenatuta.

2. FASEKO EGUTEGIA:

- **Plaza hutsak esleitzea:** urriaren 8an.
- **Ordainketa:** urriaren 8tik urriaren 11ko 24:00ak arte.
- **Ez ordaintzearen baztertuen behin-behineko zerrenda:** urriaren 15ean, 10:00etatik aurrera.
- **Erreklamazio-epea (Administraritzaren akatsa bada soilik):** urriaren 15etik 17ra arte.
- **Ez ordaintzearen baztertuen behin betiko zerrenda:** urriaren 18an, 10:00etatik aurrera.

12. ESKURATUTAKO ORDUTEGIA ALDATZEKO ESKAERA.

- **Urriaren 8tik 11ko 14:00ak arte.** Inprimakia Idazkaritzan bete edo interneten bidez beteta bidali.
- **Urriaren 18an** (14:00etatik aurrera) onartutako aldaketak argitaratuko dira.

13. PLAZAK ESLEITZEKO 3. FASEA (aurrez aurre, Tolosako HEOean bertan).

Plaza hutsak gelditzen badira, Tolosako Hizkuntza Eskola Ofizialean esleituko dira, esleipenaren 2. Fasean plazarik lortu ez dutenentzat, baztertuen zerrendan agertzen diren hurrenkeran.

- **Urriaren 22an** hutsik geratu diren plazak **HEOean eta** gure web gunean argitaratuko dira.
- **Bertan eta aurrez aurre plazen esleipena**, egutegia kontuan hartuta:
 - **Urriaren 23an**: gelditzen diren FRANTSESEKO plazak emango dira (ordutegia argitaratuko da).
 - **Urriaren 24an**: gelditzen diren INGELESEKO plazak emango dira (ordutegia argitaratuko da).
- **Ordainketa-pea**: urriaren 23tik 29ko 15:00ak arte.

14. PLAZAK ESLEITZEKO 4. FASEA (aurrez aurre, Tolosako HEOean bertan).

Aurrez aurreko esleipena eta gero plaza hutsak gelditzen badira, matrikula 2019ko urtarrilaren 31 arte irekita egongo da.

AITik gabeko atzerritarrak matrikulatu daitezke; haien herrialdeak emandako beste nortasun-agiri ofizial baten bidez identifikatu ahal izango dira.

15. IKASTURTE HASIERA:

- IRAILAREN 27an, osteguna (astearte eta ostegunetako taldeak)
- URRIAREN 1ean, astelehena (astelehen eta asteazkenetako taldeak).
-

Oharra: aplikazioak esleitutako **taldearen zenbakia** jakin behar da (<http://www.euskadi.eus/hizkuntzen-irakaskuntza-hizkuntza-eskola-ofizialak/web01-a3hheoi/eu/> en begiratu - → Kontsulta pertsonalizatuak) dagokizun ikasgela aurkitzeko.

I. ERANSKINA: BAREMOA

2013ko uztailaren 3ko Ebazpenaren I. eranskina ikusi.

Gure web orrian ikusgai <http://www.eitolosaheo.hezkuntza.net/eu/> kontsulta daiteke). – “arautegi orokorra” atalean.

A) Eskatzailearen adina:

- Onartua izateko eskabidea aurkezten duen urtean 18 urte edo gehiago beteta izatearren: 10 puntu.
- Onartua izateko eskabidea aurkezten duen urtean 16 edo 17 urte beteta izatearren: 5 puntu.

B) Desgaitasun-egoera (kontzeptuak ezin dira metatu).

Atal honetan gehienez lor daitekeen puntu-kopurua: 5 puntu.

- Eskatzailearen beraren desgaitasunagatik: 5 puntu.
- Eskatzailea adingabea bada, horren aitak, amak, legezko tutoreak edo anai-arrebaren batek desgaitasunen bat izateagatik: 3 puntu.

C) Familia ugariko kide izatea:

- Maila bereziko familia ugariko kide izateagatik: 4 puntu.
- Maila orokorreko familia ugariko kide izateagatik: 2 puntu.

D) Lanbide-egoera:

- Matrikula egin nahi den ikasturtearen aurreko ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Batxilergoan, Lanbide Heziketako heziketa-zikloetan eta hizkuntza-eskola ofizialetan edo unibertsitateetan eskolak eman izangatik: 10 puntu.